

Bi eskiatzaile Belagoako El Ferial pistetan, Lakora mendia parean dutela.



Santi Yanz



**Bueno**  
n dezagun Larra plataforma  
noa  
tzeko badugu  
a baliabide.  
o aberastasuna  
gu galdu»

arlas eta eskuinean Anie.

## Batzuen eta besteen arrazoiak

### ✘ Gaur egungo azpiegiturak hobetu:

Proiektuaren aldekoek diote egungo azpiegiturak hobetu behar direla: El Ferialen harrera etxe handi bat eraiki jendeak egoteko leku egokia izan dezan, tresneria gordetzeko, langileen baldintzak hobetzeko, beste etxola bat bihurgune helikoidalean, bost kilometro gehiago bukle eran, La Contienda deritzan lekuan... Egungo azpiegitura eskasa dela diote Erronkari Ibarreko Batzordekideek.

✘ **Elurra bermatu:** Gaur egungo pistak baxuegi daudela diote eta, neguko egun askotan, ez dutela elurrik izaten. La Contiendako pistekin arazo hori, neurri batean, konponduko litzatekeela uste dute, 1.600 metro inguruan goratuko lirakeelako.

✘ **Natura errespetatu:** Europako legedia eskuetan hartuta, iraupen eski pista hauen proiektuak ez duela legerik urratzen diote aldekoek. Azpimarratu dute, Europan, iraupen eskiko pista asko Parke Nazionalen barruan daudela eta natura errespetatzen dutela. Halaber, iraupen eskia natura gutxien kaltetzen duen modalitate-etako bat dela gaineratu dute.

✘ **Ibarrarentzat onura:** Erronkarirako onura besterik ez duela ekarriko uste dute eta, gainera, gehiengoak alde dagoela azpimarratu dute.



### ✘ Legearen aurkakoa:

Larra Errerba Naturalak 2.353 hektaria barnebiltzen ditu, Ukerdiko Erreserba Integrala barne.

Erreserba Naturalean galarazita dago inolako eraikuntza lanik

egitea, antolatutako kirol egitea, bertoko lora, fauna eta ekosistema kaltetuko litzatekeelako. Beraz, Erreserba Naturalaren mugak aldatzea erabat «bidegabea» dela salatu dute.

✘ **Natura eta paisaiaren aurkako erasoa:** Larra ekosistema berezia da oso. Pagoak, izeiak dira nagusi eta, nola ez, Erreserbako altxorrik preziatuena: pinu beltza. Nafarroa osoan ez da beste inon aurkitzen. Faunari dagokionez, sarriok dira nagusi, baina badira basoilar bakan batzuk eta, nola ez, ingurune honetan bizi da Camille hartza ere. Larra paisaia karstikoak ere ez du parerik ia Europa osoan.

✘ **Ekonomikoki bideraezina:** 600 milioiko aurrekontua du proiektuak. Aurkako irudiko, ekonomikoki bideraezina da, elurra oso elementu aldakorra delako, eta kudeaketarik egokiena eginda ere, zerbait ez direlako ateratzen.

✘ **Proposamenak:** Ez dira alternatibak, baina proiektuaren aurkakoek hainbat ideiak proposatu dituzte, hala-nola xendak balizatea, bide ferratak, ibilbide didaktikoak elurretako erraketekin edo oinez...

izabarrak eta *Zain dezagun Larra* plataformako kideak, adibidez, proiektua ez dela ona azpimarratu du, «ez ingurumenari dagokionez, ezta ekonomikoki ere; proiektua ez da, inondik inora, bideragarria». Diego Buenoren irudiko ibarrak hainbat urtez «bazterrean» utzi du Belagoako eski estazioa, «ez du inbertsiorik egin, eta, orain, proiektu erraldoi bat ekartzen digute; gauzak ez dira horrela egiten». *Zain dezagun Larra* plataforman bat egin duten kideek proiektuak bidera-

muetan. Hortxe dago Somport, esaterako. Guk ere babestu nahi dugu natura eta, egon ziur, proiektuak errespetatuko dituela bertako fauna eta euren habitata».

Koldo Goñi Nafarroako Mendizale Federazioko presidentea zuhur agertu da. «Gu, printzipioz, natura kaltetu dezakeen ezein proiekturen aurka gaude. Kontserbazionistak gara eta ez zaigu ondo iruditzen eremu babestu baten mugak, horrela, komenientzien arabera aldatzea». Proiektua «gutxienez eztabaidagarria»



Jagoba Mantecola / Argazki-Press

Sarriok Larra Erreserba Naturalean.

garritasun ekonomikorik ez duela uste dute, eta bailara ez dela gai behar den inbertsioari aurre egiteko. Horretaz gain, alderdi ekologikoari dagokionez, ingurumenaren estazioak izanen lukeen eragina Erronkariko biztanle guztientzat kaltegarria izanen litzatekeela diote. «Gure ondarea suntsitu nahi dugu; Larra Eremu Naturala ukitzeko beharrik ez dago, ezta legea aldatzeko beharrik ere, beraz».

Buenoren ustez kontua ez da iraupen eskiko estazioa egiteko Larra eremu txiki bat edo handi bat behar den: «Larra mugak direnak dira, eta, gaur zati bat kentzen badugu, gero beste handiago bat nahiko dugu. Erronkarik baliabiderik ez duela erraten dute, baina gertatzen dena da duguna baloratzen ez dakigula. Turismoa erakartzeko adina baliabide dugu egun, eski estazioa egin gabe ere. Larra duen aberastasunari eutsi behar diogu, bere osotasunean», gaineratu du plataformako kideak.

### Legez kontrakoa

Gaur egun, legeak dauden bezala, legez kontrakoak lirateke egin nahi dituzten eski pista horiek. Proiektuan hiru aurrikusten dira: bat babes bandaren barruan eta beste biak, bete-betean, Erreserba Naturalean. «Beraz, Erreserbaren barruan ezin da lurrik mugitu, ezin da eraikinik egin, ezin da kirol antolaturik egin... Galarazita dago hori guztia», azaldu du Koldo Aldazek. Gainera, Aldazen arabera, Erreserba Naturalen mugak aldatzearekin ez litzateke nahikoa, Europako Prebentzio Printzipioa ere hor dagoelako, Larra bezalako eremuak babesten.

Angel Luis de Miguel Izabako alkateak dio, ordea, Europako legedia betetzen duela proiektuak. «Alpeetako Juran edo Frantziako Pirinioetan, adibidez, badira iraupen eskiko pista babestutako ere-

dela dio Goñik, baina patxaraz eseri —«egitasmoaren aldekoekin ere bai»— eta aldeko eta kontrako guztiak poliki aztertu behar direla dio.

### Areteko iraupen eskiko pista kilometro gutxira

Areteko eski estazioan bada iraupen eskiko beste pista bat, Bracakoa: sei kilometro eta erdi baso artean. Hala azaldu du Koldo Aldazek: «Proiektuan aurrikusten diren pista horien bizkia da Aretetako: altuera berbera, elur kopuru berarekin eta ipar aurpegia izatearen aldearekin. Kasurik gehienetan, gainera, Aretetako eskiatzera doan jendeak —hegoalde-tik hurbiltzen badira behintzat— Erronkarin hartzen du ostatu eta han bazkaltzen edo afaltzen du. Erran nahi dudana da, dirua Erronkarin geratzen dela eta ezer inbertitu gabe».

Arestian esan dugu, proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa ere ez dagoela guztiz argi. Horri buruz, ezkor agertu da Jesus Bueno ekonomilaria. Zain dezagun Larra plataformak eta Nafarroako Mendi Federazioak herenegun Iruñeko Planetarioan antolatu ekitaldian hartu zuen parte Buenok. Bereak dira hitzak: «Gaur egun dagoen proiektua, ikuspuntu ekonomikotik helduta, zorroztasunik gabekoa da, erabat».

Buenoren ustez Erronkariko Bailarako Batzordeak ez du indar nahikorik proiektuak behar duen inbertsioari aurre egiteko, eta bailarako agintarien aurreikuspen onenak betetzen badira ere «zail» ikusten du proiektuaren bideragarritasuna. Egundak diren pisten balantze ekonomikoa ere negatiboa da, elurra ez baita, ekonomiarik dagokionez, balore ziurra, batez ere kontuan hartuta azken urteotako joerak erakusten duela gero eta elur gutxiago egiten duela.

izateko». Horretarako, pistak elurra dagoen aldera mugitu nahi dituzte, La Contienda ingurura (1.600 m), altuera horretan elurra gehiago izaten delako. «Elurra baliabide oso garrantzitsua da Erronkarirako, aberastasun iturria eta, beraz, ahalik eta gehien baliatu behar dugu. Gaur egungo egitura eta pistekin ez goaz inora; zulatutako txalupa batekin gabiltza itsaso zabalean», dio Izabako alkateak.

Alabaina, Erronkarin, ostalaritza sektore ia osoa kontra dago eta, bitxia da, eurak lirateke-eta balizko bisitari kopuruaren gorakadari etekin gehien aterako liokeenak. Dena den, badira salbuespenak. Izabako Lola ostatuko nagusi Jose Manuel Bescosek, adibidez, aldeko iritzia agertu du. «Duguna hobetu behar dugu; gauden bezala ezin dugu aurrera egin, Belaguako pistak baxuegi daude, eta elur gutxi dago. Aazpiegitura hobetzeak guztioi ekarriko digu onura».

Bescosek nabarmendu du, halaber, proiektuak bailara osoaren oniritzia jaso duela. «Bailarako jendeak egindako proiektua da, bailara osoan onartutakoa. Jendeak argi ditu dauden beharrak eta badaki erantzuna behar dutela». Bescosek argi erran digu: «Bertakook argi dakigu gure ingurumena zaindu behar dugula, natura baita turismoa erakartzeko dugun tresna nagusia».

Proiektuak izan dezakeen eragin ekologikoaren inguruan sortutako eztabaidaren harira, «kexak kanpotik» datozela gaitzetsi du Bescosek, eta berretsi du proiektuak ibar osoaren adostasuna lortu zuela onartu zenean. «Bailarak aurrera egin nahi badu, eta eskiaren alorrean lan egin nahi badu horretarako, beharrezkoa da zerbait egitea. Denon onerako da», bukatu du.

Erronkarin, ordea, denak ez dira aldekoak, ezta gutxiagorik ere. Diego Bueno